



AITOR ESTEBANEN HITZALDIA
EGI EGUNA

Egun on EGIkideok.

Zuetariko gehienek ni ere EGIkidea izan nintzela dakizuela uste dut. 16 urterekin alderdikidetu nintzen Euzko Alderdi Jeltzalean, eta beraz Euzko Gaztedin. Kontzeptu bi horiek, EAJ eta EGI, banaezinak direlako. Hau ez da nire lehen EGI Eguna, ezta bigarrena, edo hirugarrena. Zuek bezalako gaztea nintzen. Nire kezka eta ardurekin. Etorkizuna nolakoa izango zen argi jakin gabe. Baina prest nengoen Euskadiren alde lan egiteko eta banekien tresnarik onena gure Alderdia zela. Urte asko pasatu ondoren eta gauza asko ikusi ondoren hori bera pentsatzen jarraitzen dut. Ziortzak, Asierrek edo Gorkak esandakoak ezagun egin zaizkit.

Ilusio handiz hasi nintzen, dana emateko prest. Harrezkero hainbat urte igaro da Aberriarekiko konpromisoan eta ez naiz sekula damu izan. Eta gaur hemen nauzue, zuen aurrean. Eta mezu argi batekin nator. Ez zarete belaunaldi galdu bat, batzuk esaten duten bezala. Aurrera egin nahi duen belaunaldia zarete. Ez zarete gure etorkizuna, gure oraina zarete. Aberriaren aldeko bidea norberak aurkituko du, bakoitzaren nortasuna, nahiak, gustuen arabera. Aberria toki guztietatik egiten da, ez da axola zein den zure ogibidea edo jarduna: unibertsitatetik, enpresatik, denda batetik, kirol elkartetik, gizarte elkarteetatik e.a. Zuen lekua hartu behar duzue gizartean. Eta baita ere gure Alderdian. Ez egon ezeren zain. Gure oraina eta etorkizuna erabaki behar duzue zuek ere. Zuen unea ez da etorkizun urrunean hasiko. Zuen momentua hasi da, Euskadik behar zaituztelako!

Diotsuedana ez da hitz hutsa. Ez da beste hitzaldi bat gehiago, gaur hemen EGI Eguna ospatzen gaudelako. Ikusten duzue jende gaztea kargu politiko garrantzitsuetan txanda hartzen hasi dela. Ikusi duzue Euzkadi Buru Batzarrean, baita zeinbait udalerritan ditugun alkatetzetan. Eta 2027an aurkeztuko ditugun hautagai asko gazteak izango dira, gazteak izango zarete, hautagai asko hemen berton zaudete eta. Guri dagokigu zuen ahaleginean laguntzea. Eta ni horretara konprometitzen naiz. Halaxe agindu nuen orain urte bat Atanon EBBren buruan aukeratua izan nintzenean, eta nire hitza ematen dizuet beste behin ere.

Datozen garaietarako zuen laguntza behar dugu. Ikusten duzue zelan dagoen mundu zoro hau. Trump, Ekialde Ertaina, Ukraina, Venezuela, Kuba... Momentu zailak dira demokraziarentzat eta sasoi zailak datoz. Gure egunerokotasunean eragina duten gatazkak dira, prezioen gorakadan adibidez. Eta busti beharra dago. Gurea aldeztu behar dugu. Eta lidergoa erakutsi egoera honetan. Politikariak



gidatzeko dagoz, ez berba hutsetan aritzeko. Benetako politikaren muina, akordioak egitea eta herrikideei egia esatea da. Bidea aukeratzea askotan iparrorratz barik, argitzalean, ez dala erreza badakit. Eta politikan hartzen diren erabakiak ez direla sarritan guztien gustukoak. Baina konponbideak aurkitzeko politika ezinbestekoa da, eta gure herriarentzat Alderdia guztiz beharrezkoa da. Gure eskutik herri honek egin duen ibilbideaz harro egon gaitezke. Aste honetan bertan jakin dugu Nazio Batuek Euskadi aukeratu dutela demokrazia babesteko politiken nazioarteko eredu gisa. Hau eredu baten ondorioa da, geure ereduaren ondorioa!!

Eta gure eredia argi dago zein den. Ondo azaldu du Gorkak. Gu abertzaleak gara. Euskaldunak. Euskalzaleak. Aberri hau egunero eraikitzen laguntzen dugu iragana aztertuz eta etorkizuna garatuz. Giza eskubide guztiak nahi ditugu pertsona guztientzat. Euskaldun bakoitzak bere bizi proiektua garatzeko neurriak jartzen ditugu martxan hezkuntzan, etxebizitzan, garraioan, kulturen, industrian eta abar. Dena gure gazteriarren eskutik. Hori da gure eredia, EAJren eredia, EGIren eredia. Baina zer egiten dute ERNAI-k eta GKS-k? Ze ekarpen egiten diote gizarteari? Pankarta baten atzean jartzeak zeozker konponduko du? Gazteak eta irakasleak seinalatzeak unibertsitateetan edo txosna guneetan? Irainak? Euren moduan pentsatzen ez dutenak beldurraren bitartez ixilarazteak? Zer irakatsi diete? Nork irakatsi die? En nuestro país siempre ha existido el integrismo. La intransigencia que busca imponer. Empezando ya en el siglo XIX con los Carlistas, que hablaron siempre de ir al monte, de partidas y guerras civiles. Porque el integrista no ha concebido nunca el triunfo de sus ideales en la historia más que a través de la imposición y de la guerra civil. Y así hemos vivido hasta nuestros días ese integrismo de uno u otro color. Controlar la calle por la presión o el miedo. Pero en realidad, como recordaba don Manuel de Irujo, “el vasco no es amigo de extremismos. Habrá entre los vascos gente que lo sea. No lo dudo. Lo que niego es que esos extremismos representen al promedio de la gente vasca”. Behinola Francoren barne ministroa zen Fraga Iribarne «la calle es mía» esan zuen. Horren antzera, gaur ere batzuk, kalea beraiena dela uste dute, baina izan argi: kalea guztiena da eta etorkizuna gurea da. Ez izan inolako zalantzarik. Ausartak izan. Guk ez dugu seinalatzen, proposatzen dugu. Guk ez dugu oihukatzen, aberria eraikitzen dugu. Eta Euskadi eguneroko lanez, eraikiz eta ez zapuztuz, defendatu eta egiten da, ez zarata, marru, eta pankarta baten atzean. Gu gara, gure Alderdia da, Herrialde hau eraikitzeko dena eman duena. Euskadi fidagarria, seguru eta sendoa izan dadin, autogobernuaren eskutik ongizatea eta industria bultzatuz, Europari begira dagoen herria. Askea izan nahi duena!

Efectivamente, el PNV no representa lo mismo que otras siglas. No somos lo mismo porque frente a quienes se camuflan, se esconden o simplemente ya no saben ni lo que son, el PNV habla alto y claro, y lo hace con coherencia y sin demagogia. Con la coherencia que da mirar de frente nuestra trayectoria, con la que nos



reconocemos en el hacer de hoy. Sin demagogia, atreviéndonos a explicar a la gente las cosas como son, no a endulzar los oídos con eslóganes fáciles e irrealizables. Seguimos siendo quienes apostamos por nuestro autogobierno porque es la mejor herramienta para seguir prosperando y seguir aumentando el bienestar de nuestra ciudadanía, sin dejar caer a nadie. Somos los que hemos apostado por nuestra industria, apoyado a nuestras empresas y valorado a los y las trabajadoras, porque sabemos que un tejido industrial fuerte es la mejor palanca para mantener unos empleos dignos y poder hacer frente a situaciones económicas complicadas o adversas, como la que vivimos actualmente. El mejor escudo social es el escudo industrial. Sin duda.

Y somos nosotros y nosotras, EAJ-PNV, quienes llevamos más de un siglo defendiendo lo que queremos seguir siendo: nuestro País, nuestra identidad y nuestra lengua, y haciéndolo desde la centralidad política, sin caer en extremismos ni populismos, entendiendo que en este proyecto común que es Euskadi, todos y todas tenemos un lugar. Mirando también más allá, sabiendo que formamos parte de Europa, que es el futuro, y afirmando que Euskadi merece su lugar en ella al mismo nivel del resto de las naciones que la conforman. Somos, en definitiva, quienes hemos contribuido de forma decisiva a construir este País y a convertirlo en un País serio, en un País confiable. Y lo hemos hecho sin señalar, sin gritar. Nosotros y nosotras proponemos, incluimos, sumamos. Defendemos la democracia, la libertad, la justicia social y la igualdad. Y tenemos una aspiración clara: ser más Pueblo y ser más nación ¡Ese es nuestro modelo de País y a eso nos vamos a dedicar con todas nuestras fuerzas, a seguir construyendo este País! ¡Un País para todas y todos!

Construir el País. En esto, creedme, sois imprescindibles. Todos y cada uno de vosotros y vosotras. EGI lo lleva en su ADN y simbología: por una parte, la antorcha de su emblema original es la del cuadro de Guernica y simboliza la antorcha de los gudaris del 36, que ha pasado a todas y todos vosotros. Y, por otra, aquella pegatina de la transición en la que se veía a un joven con txapela que directamente parecía estar señalándote, interpelándote, diciéndote «Euskadik behar zaitu». Sois el eslabón de una cadena. No vamos a avanzar, no podemos seguir avanzando, si no lo hacemos de vuestra mano. Sin vosotras y vosotros no hay segundo paso. Danak zarate beharrezko, ezinbestekoak!!

EAJ-PNV es clave en la construcción del País y representamos la centralidad política. Esto no es un eslogan, no es palabrería; es algo que se comprueba en el día a día. Ayer mismo, con el acuerdo alcanzado en Madrid por nuestro Gobierno. Es un acuerdo amplio, centrado en lo que importa: no solo aumenta nuestras



capacidades políticas dando pasos en la consecución del Estatuto de Gernika con 7 nuevas competencias, sino que los acuerdos incluyen medidas industriales y de seguridad, algunas de las principales preocupaciones de la ciudadanía en este contexto de dificultades. Mientras algunos hacen ruido, bloquean o dicen ‘no’ a todo, nosotros y nosotras llegamos a acuerdos. Avanzamos. Estamos en la política útil, esto es hacer País.

Ezinezkoa zirudiena lortu da: gure aireportuen kudeaketan Euskadik ahalmena izango du. Eta berri bikaina da. Lortutako hitzarmenak 7 konpetentzia gehitzen dizkio gure autogobernuari. Honek garrantzi politiko handia du, zalantzarik gabe, baina aplikazio praktiko argia ere badu. Baita industria edo segurtasun arloan lortutako akordio garrantzitsuak. Izan ere, zer da politika pertsonen bizitza hobetzeko eragin zuzenik ez badu? Hori da gakoa, eta horretarako dago EAJ-PNV hemen, eta horretarako jarraituko dugu hemen. Herria eraikitzeke eta gure ongizatea handitzeko. aberria eraikitzen jarraitzeko! Ongizatea lanaren ondorioa da, ez zaitezte ahaztu. Atzean lana dagoelako funtzionatzen dute gauzek. Zerbitzu publiko onak ditugu eta gure gizarte anitza eta demokratikoa da, horrela eraiki baitugu guztion artean. Jarrai dezagun.

Amaitzera noa. Badakit esango dudana dakizuela, eta horregatik zaudetela hemen, baina ez dago soberan aipatzea: Euskadik merezi du. Nik hori pentsatzen nuen 16 urte nituenean, eta horixe bera pentsatzen jarraitzen dut, 48 urte geroago. Eta hemen darrait. Lehen bezain ziur, Alderdi honek benetakoa dela erakutsi didalako. Ideietan datzala bere indarra, ez interesetan. Baloreak dituela, ikusi, sentitu dodalako. Nire gazte denborako grina ez zala amets hutsa, helburu bereko talde bat garela sentiarazi didalako.

Herri hau ez da bakarrik egin eta ez da bakarrik egiten. Lan handiz eta etengabeko konpromisoz eraikitzen da. Ez da berez iraun, ezta iraungo. Ez dago ezer bermatuta. Dena da lana, irmotasuna eta nekaezintasuna. Horrela egin zuten gure aurrekoek, eta horrela jarraitu behar dugu. Orain zuen txanda da. Gazteak, zuen garaia da. Indibidualismo hutseko sasoi hauetan, eskuzabaltasuna eskatzen dizuet, zuen herriaren aldeko lana eskatzen dizuet. Badakizue argi hitz egiten dudala, ez dakit bertutea den hori, baietz pentsatu nahi dut: Aberriak behar zaituzte. Ez da erraza izango; ez da erraza izango, baina merezi du. Euskadik zuen ahalegina eta izerdia merezi ditu. Alderdiak be bai.

Bizi Aberria! Aberria bizi!

Gora Euskadi Askatuta !!!